


HIZKUNTZA PROIEKTUA



HAUSNARKETA ETA PLAN ESTRATEGIKOA
AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI [2018 - 2022]



EREMUEN GAINKO HAUSNARKETA

JUSTIFIKAZIOA

Testuinguru soziolinguistikoa

Urola erdian kokaturik dagoen ikastola da, Azpeitian. Hau Euskal Herriko udalerririk euskaldunenatarikoa da eta 10.000 biztanletik gorako udalerrien artean elebidun proportziorik handiena du, %88,6. %7 da elebakarra, baina aipatzekoa da elebakar gehienak 65 urtetik gorakoak direla, 20 urtetik beherakoen artean %2 soilik baita elebakarra. Ikasleriaren portzentaje nagusia azpeitiarra da, baina Azkoitiko, Zestoako, Errezilgo eta Azpeitiko hainbat auzotako (Landeta, Urrestilla, Nuarbe...) ikasleak ere badira.

Ebaluazio diagnostikoaren datuei erreparatuz, EAEko indize orokorretik dago Ikasberri Ikastola. Aztertutako alor guztietan, gure ikastolako datuek aise gaınditzen dute EAEko bataz bestekoa. 5eko eskalan, 4,8koa da erabilera orokorra Ikasberri; 3,3koa da, berriz, indize orokorra. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da Azpeitia, eta arnagunetzat hartzen da.

Dena den, 2016an Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren arabera, euskararen kale erabilera jaitsi egin da azken neurketarekin alderatuta. 2016an %81,9k hitz egiten zuen euskaraz, 2009an, berriz, %86k.

Familia tipologiaz esan dezakegu elebiduna dela ia ehuneko osoan, fenomeno bakarrenetakoa Euskal Herriko geografian. Ondorioz, ikasleak ere elebidunak dira (HHn eta LHn gehiengoa euskal elebakarra). Azpimarratzekoa da etorkinen kopurua handitzen ari dela eta hauen egokitzapena euskararekiko azkarra eta egokia izan dela, salbuespenak salbuespen. Bistan dago hau dena gauden eskualdea euskaldun peto-petoa delako dela. Hala ere, azken urteetan etorkin kopurua handitzearekin batera, gero eta gehiago kostatzen ari da euskarara egokitzea.

Beste hainbat ikastola bezala, 1960ko hamarkadan sortu zen ikastola Urola Erdiko eskualde honetan, noski, euskara eta euskal kultura oinarritzat hartuz, hezkuntza euskalduna lortu ahal izateko eta era berean frankismoaren eredutik libratzeko edo, gutxienez, urruntzeko. Euskara hizkuntza ikasleak bereganatzea baino, hezkuntza euskaraz jasotzea zen helburua, zeren eta inguruaren ezaugarriengatik, lehen aipatu bezala, zonalde hau ia guztiz euskalduna zen garai haietan ere. Horren lekuko, etorkin asko eta asko euskalduntzen zirela “kaleko eskolari” esker. Ezerezetik hasita, aipatzekoa da garai hartako andereño bihurtutako gazteen adorea eta elizaren borondatea, bere gelak ikasgela bihurtzen uzteagatik.

Nahiz eta ikasleen gehiengoak bertako jatorria izan, gero eta gehiago ziren etorkin jatorrikoak ikastola hautatzen zutenak euren hezkuntzarako.

Lehen urratsetatik, Ikastolen Elkarteko material pedagogikoa erabili zen eta da eta D eredia izan da gauzatu den eredu bakarra. Ez zen horren inguruan eztabaidarik egon. Bai, ordea, 1970eko hamarkadan sortu zen dilemarekin: euskalkia edo euskara batua, zeini eman lehentasuna. Eztabaida sutsu baten ondoren, euskara batua hautatu zen, eta nahiz eta gaur egun urrun ikusi gatazka hura, kostatzen zen zauria sendatzea.

Ildo beretik, euskararen erregistroen gaineko hausnarketa egina dago Ikasberri. Esparru bakoitzean zein erregistro eta aldaera (estandarra, euskalkia, hitanoa...) zehaztu genuen orduan.

1993an Eusko Jaurlaritzak mahai gainean ezarritako publikazio legea zela eta, ireki zen ikastolak nozitu duen zauririk larriena, ikastolako familia osatzen zuten artean. Prozesu luze, gatazkatsu eta mingarria jasan ondoren, 400 bat familia eta beste hogeiren bat ikaslerekin sortu zen Ikasberri Azpeitiko Ikastola proiektua. Horrela erabaki ez zuten kideek, publikatutako eskola hautatu zuten. Ikasberri Azpeitiko Ikastola kooperatibak berretsi zituen eta ditu ikastolako printzipioak.

Gaur egun, 0-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintza du, HHTik hasi eta Batxilergora arte.

HHn KIMU proiektua dugu abian, Konfiantzaren eta Integrazioaren Pedagogia ardatz harturik, haurren garapen integrala helburu duen proiektua.

LHn, berriz, Ikaskidetzaren proiektua jarri dugu martxan. Ikasleei erronkak planteatzean datza metodo hau, eta eurek, lan kooperatibo bidez, horiek erdiestean. KIVA programa ere etapa honen barnean lantzen da. Eskola jazarpenaren aurkako sistema honek, ikasleen jarrerak aldatzea bilatzen du, horrela jazarpena ekiditeko.

EKI proiektua da DBH osoan erabiltzen den eredia. Ikasle konpetenteak helburu, edukiak lantzen dira, beti ere egiantzeko egoera bati erantzun ahal izateko.

Ikasberriko langileek komunikazio ez-bortitzaren inguruko ikastaroa ere eginda daukate.

Hasiera-hasieratik, abian zegoen Euskaraz Bizi proiektuan murgildu zen. Euskaraz aritzeko motibazio-kanpainen beharrik ez da izan ikastolan, baina Euskaraz Biziren baitan gauza asko eta asko egin dira.

Euskal tradizioiko eta kulturako ondarea suspertu, sustatu eta errekonstratu da. Aipatzekoa da, adibidez, ikastolak Azpeitiko herriari eskaintzen diona, kalean egiten baita, Euskal Inauteriaren arima eta ikuskizuna, euskal geografian oinarritutako dantzak irudikatuz. Urtez urte pertsonaia berriak sartzen dira eta ikasleei euskal tradizioak barnerarazi. Olentzero kalera ateratzeko ekimena ere Ikasberriren bultzadaz gauzatu da.

Euskaraz aritzeko motibazioaren beharrik ez bada izan ere, bai, ordea, euskararen maila hobetzearena, eta gurasoentzat zein irakasleentzat ikastaro trinkoak antolatzen dira.

Bestalde, aipatzekoa da gure ikasleek kalitatezko kulturarekin gozatzeko udalarekin egiten dugun elkarlana, antzerki obrak eta bestelako emankizunak eskainiz, Donostiako Zinemaldira irteera antolatuz...

Era berean, Hizkuntza Proiektua sendotzen jarraitzen dugu. Gaztelaniaren ezagutza eta erabilera hobetzeko trataera berezia eman diogu hizkuntza horri, eta lehen gaztelania ikasgaiarekin LH3n hasten baziren, gaur egun LH2n hasten dira. DBH osoan zehar frantsesa derrigorrezko ikasgaia da, eta Eleanitz metodologiarekin lantzen da. Bestalde, DBH3n eta DBH4n, Gizarte Zientziak ingelesez lantzen dira.

Ildo beretik, euskararen erregistroen gaineko hausnarketa egina dago Ikasberrin. Esparru bakoitzean zein erregistro eta aldaera (estandarra, euskalkia, hitanoa...) erabili zehaztu genuen orduan, eta urtero baloratzen dugu bere ezarpena, egonkortu bitartean.

Horrez gain, hitanoa bada Azpeitiko euskalkiaren eta izaeraren parte esanguratsua, eta berau mantentze eta indartze aldera, ikasturte amaieran, LH5, LH6 eta DBH osoan hitanoa lantzeko saioak egiten dira.

EREMU INSTITUZIONALA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Gure ikastolan, bere hasieratik, euskararen erabilpena oso altua izan da. Hizkuntza Proiektua sendotzeko eta egonkortzeko bidean gabiltza orain, hartutako erabakiak betetze bidean (euskararen presentzia bermatzea, erregistroen trataera, gaztelania indartzea...).

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	100
Erabilera:	86.3
Espero zitekeen erabilera:	100
BRANKAk ateratako datuen interpretazioa	Erabilera txikia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak, berez (zoriz), ahalbide dezakeenera iristen ez denean; hizkuntza-bizitasun maila txikiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza proiektua garatu eta sendotu egin behar da.

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Datuetan ikusten denez, eremu instituzionalean euskararen presentzia eta erabilera oso altua izaten jarraitzen du. Presentziatik erabilerara dagoen jaitsiera hori kanpoko faktoreei dagokie, herritik eta eskualdetik kanpoko harremanetan zenbaitetan behartuta baikaude gaztelaniaren erabilerara.

ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Eremu honi dagokionez, gure lana hizkuntzen irakaskuntzako metodologiaren inguruan murgildu da. Hizkuntza proiektua sortzeari esker hizkuntzen irakaskuntza modu integratuan eskaintzeko erronka planteatu zitzaigun eta, euskara ardatza izanik, hizkuntza bakoitzaren lekua finkatuta daukagu. Baina gai honek eskatzen duen moduan, datozen 4 urte hauetan, berrikusten eta osatzen jarraituko dugu. Prestakuntza ere behar horri begira bideratu dugu.

DBHn, EKI proiektuarekin, dagoeneko 1. promozioa atera da. Orain da garaia balorazioa egin eta egokiak diren aldaketak proposatu eta gauzatzeko. LHn metodologia aldaketa gauzatzeko ari gara ikastolaren ekimenez, eta horrekin jarraituko dugu. Ikaskidetza proiektuarekin, ikasleak konpetentzietan hezteko helburu, talde egoeran eta erronken bitartez, besteak beste. Bastalde, euskal kulturaren transmisio egokia egiten jarraitzea ere helburu nagusietako bat da. Euskal tradizioan agertzen diren hainbat adierazpen berreskuratu eta ikasleen eskura jartzea da gure lana, baita ere hitanoari trataera berezia ematea (LH5, LH6 eta DBHn).

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	87.21
Erabilera:	92.59
Espero zitekeen erabilera:	87.4
BRANKAk ateratako datuen interpretazioa	Erabilera oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeena gainditzen du; hizkuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza proiektu

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Gure ekintza nagusiak maila hori mantentzeko sentsibilizazioaren bidetik burutu ditugu, bai euskara, bai euskal kulturarekin identifikazio sendoa lortzeko asmoan. Erronka nagusia, euskararen presentzia eta erabilpen maila mantentzeaz gain, zuzentasuna zaintzea eta erabili beharreko erregistroen gainean erabakitakoak betetzea da. Izan ere, euskararen erabilpen maila altuak ez digu ziurtatzen ez zuzentasunez mintzatzea, ez egoera guztietan komeni den erregistroa behar bezala identifikatzea. Honetan hasi eta oinarriak jarri baditugu ere, hurrengo lau urterako erronka izango da, alde batetik, euskalkien erabilera eta, bestetik, erregistroena, egonkortzea eskolako kide guztien artean.

GELAZ KANPOKO JARDUERAK

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Gelaz kanpoko jardueren eremuan gure lana hizkuntza eredua zaindu eta euskal kultura eta geografiaren ezagutza egokia lortzea izan dira. Lan hau burutzeko Eusko Jaurlaritzak planteatutako Ulibarri programa eta Ikastolen Elkartek martxan jarri zuen Euskaraz Bizi egitasmoaren bidea hartu genuen.

Hemen ere euskararen presentziarekin ez daukagu arazorik, baina bai hizkera ez-formalaren kalitatearekin. Hor eragin behar dugu, beste hizkuntzen kutsu gehiegizkorik gabeko hizkera ez-formala lortzeko.

Aipatzekoa da *Euskarak 365 egun* dinamikarekin bat egin duela Ikasberrik, eta 2018an gauzatuko den Euskaraldia ekimenean parte hartuko duela, Azpeitiko errealitatea ikusiz, ekimen nazionala baino pauso bat gehiago emateko asmoz, gainera. Bestalde, eskola kirolean, erabili beharreko hizkuntzaren inguruko irizpideak ere ematen zaizkie begiraleei.

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

Presentzia:	94.37
Erabilera:	99.65
Espero zitekeen erabilera:	94.57
BRANKAk ateratako datuen interpretazioa	Erabilera oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeena gainditzen du; hizkuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza proiektu arrakastatsua.

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Gure ekintza nagusiak maila hori mantentzeko sentsibilizazioaren bidetik burutu ditugu, bai euskara bai euskal kulturarekin identifikazio sendoa lortzeko asmoan. Gure erronka nagusia maila hori mantentzea izango da. Orain arte bizi izan dugun egoera aldatuko duen eragilerik ez dugu aurreikusten, beraz, eremu honetan jarraitutako estrategia mantentzea da asmoa. Bestalde, hizkera ez-formala lantzeko jarduera zenbait burutuko ditugu gelaz kanpoko begiraleekin.

BESTELAKO TRESNAK

Bai Udalerriko datuak ikusita (Eustaten 2011ko datuak: %83,65 euskaldunak; %8,37 ez euskaldunak, eta hauetatik gehienak 65 urtetik gorakoak) eta baita ikastolakoak ere, printzipioz hain datu onak izanda ez genuke ardura handirik izan beharko. Baina ikusita gero eta etorkin gehiago datozela herrira, beraz, Ikastolara ere bai, eta ez direla lehen bezain erraz integratzen, hor jarri behar dugu arreta. Etorkin hauentzat Ikastolan plan bereziak egin eta Udalak Euskara Patronatoaren bidez eskaintzen dituenetan parte hartzera bultzatu.

EREMUEN LEHENTASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Datozen lau urteetan gure behar nagusiak eremu instituzionalean (ikastola barruan) eta eremu pedagogikoan (gela barruan) identifikatu ditugu. Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak dokumentatzearen lanarekin jarraitu beharko dugu eta orain arte gozatu dugun euskararen erabilera maila altuak mantentzeko ahaleginekin segi.

Erregistroen inguruan hausnarketa sakona eginda dago jada, eta erabakiak dokumentuetan jasota daude. Plana martxan jarrita dago dagoeneko eta bere jarraipena egitea da falta zaiguna.

Etorkinen kontuarekin ere, oraindik ez bada larria ere, adi egon nahi dugu, ahal bada orain arte bezala integratzen jarrai dezaten eta horretarako guk dauzkagun baliabideak eta Udalak eskaintzen dituenak erabili. Protokolo bat ezarri berri dugu horretarako. Bestalde, dagoeneko hasi gara nabaritzen gaztelania hiztunek gainontzeko ikasleengan eragina dutela hizkuntza erabileraren alorrean (HHTik hasita), eta arreta berezia eskaini behar diogu horri.

PLAN ESTRATEGIKOA [2018-2022]

1.1. atala: EREMU INSTITUZIONALA-IKASTETXEA (LANGILEEN PRESTAKUNTZA IZAN EZIK)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Plan Estrategikoaren 4. urtean Plan Estrategikoa bera berritzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Brankarekin lotura = 20 • Betetze maila = 20 	<ul style="list-style-type: none"> • Betetze mailaren balorazioa = 10 	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa jarduerak • Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza				X
Ikastolako eremu instituzionaleko euskararen erabilera maila igotzea, horretarako kanpo-harremanetarako hizkuntzen irizpideak aztertuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Betetze maila = 20 		<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio jarduerak • Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Hizkuntz trataerari buruzko dokumentuetan jasotakoa berrikustea eta behar diren aldaketak egitea.		<ul style="list-style-type: none"> • Asebetetzearen balorazioa = 7 • Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnarketa jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

1.2. atala: EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA (1. ZATIA)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Hizkuntza arloan kurrikulum bateratuarekin jarraitzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Gainontzeko arloetan finkatutako hizkuntzen trataera instrumentalarekin jarraitzea		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduan sakontzea (EKI, Ikaskidetza, KIMU), egokiak irizten ditugun berrikuntzak ezarri.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Euskara eta euskal kultura sustatzeko gela barruan egiten dena aztertzea eta osatzen.		<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Hausnarketa jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X		X	
Herriko kultura ezagutzeko herri mailan ateratako materiala zehar-lerro bezala txertatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 8 Parte-hartzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Zuzendaritza	X	X		

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Hizkuntza Prestakuntza Plana hezkuntza komunitatean antzemaniko premiei egokitzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak Ebaluazio jarduerak Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Aurreko Plan Estrategikoan zehaztutako hizkuntz erregistroen inguruan erabakitakoak berrikustea eta beharrezko aldaketak egitea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Ebaluazio jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X		
Frantsesean ikasle guztientzat ezarritako Eleanitz proiektuaren balorazioa egitea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X		
Hizkuntz arloko mintegi bateratua sendotzea eta egiten den lana sozializatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak berrikustea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 6 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X		

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ebaluazio diagnostikotik eratorritako datuak alertu ondoren, HIZPROn gogoeta egitea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Hizkuntz proiektua taldea		X		X
Konpetentziei begira ebaluazio irizpideak berrikustea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Zuzendaritza	X	X		
Ikasle etorkinen murgiltze planaren inguruan hausnartzea eta berrikustea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X		
Euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzea		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 5 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Arloetako kurrikulumetan IKTen erabilera eta ebaluazioa irizpide eta adierazleak gauzatzen direla ziurtatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X		X	

1.3. atala: EREMU INSTITUZIONALA – KANPO HARREMANAK (1. ZATIA)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Inguruko beste ikastetxeekin edo sarekoekin aritzeko hizkuntz irizpideak berrikustea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Artezkaritza kontseilua	X	X		
Ikastolak enpreekin edota hornitzaileekin harremantzeko zehaztutako hizkuntz irizpideak betetzen direla ziurtatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio jarduerak Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikastolako kanpo harremanetarako hizkuntz ildoak Hizkuntza Proiektuan islatzen direla ziurtatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Eskolaz kanpoko jardueretako begiraleek (ikastolarekin lotura zuzena dutenak) euskaraz egiten dutela ziurtatzea eta horretarako neurriak hartzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak Ebaluazio jarduerak Sentberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

1.4. atala: EREMU INSTITUZIONALA – KANPO HARREMANAK (2. ZATIA)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastolak administrazioko edozein erakunderekin dituen harremanetarako hizkuntz irizpideetan euskara lehenesten jarraitzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 10 	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

2.1. atala: EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA (IKASLEAK)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Euskararen erabilera altua izanik ikasleen artean, ahozko komunikazio kalitatezko eta esanguratsua bermatzeko estrategia didaktiko egokiak erabiltzea.		<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntzaren balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Hausnarketa jarduerak Ebaluazio jarduerak Prestakuntza edo trebatze jarduerak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Euskal kulturarekiko dugun sentsibilitate eta atxikimendu maila mantendu edo sendotzeko ekintzak burutzen jarraitzea eta ekintza berriak txertatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Hausnarketa jarduerak Prestakuntza edo trebatze jarduerak Sentiberatze-motibazio jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Ikasleen arteko hizkuntza bakarra euskara izaten jarraitzea, batez ere atzerritarrekin		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Ikasle berantziarren kasuan (atzerritarrak barne), lortu beharreko profilararen arabera helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak berrikustea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X		
Beste hizkuntzadun ikasleekin trukeak, egonaldiak edo teknologia berrien bidez komunikazioa berrikustea.	<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzeari dagokiona = 20 Betetze maila = 20 		<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektu taldea	X	X	X	X

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Atzerritarrak, DBHkoen kasuan, Udalak Udal Euskaltegiaren bidez eskaintzen dituen ikastaroetara bideratzea, eta LHkoen kasuan, Udal Euskaltegitik etortzen diren irakasleengana.		<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzearen balorazioa = 9 • Beetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa jarduerak • Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

2.2. atala: EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA (IRAKASLEAK)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastolak finkatutako hezkuntza eta hizkuntz ikuspegiarekiko irakasleen prestakuntza plana diseinatzea eta gauzatzea.		<ul style="list-style-type: none"> • Asebetetzearen balorazioa = 9 • Parte-hartzearen balorazioa = 9 • Prestakuntzaren balorazioa = 9 • Betetze mailaren balorazioak = 9 	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa jarduerak • Hausnarketa jarduerak • Erabakiak adosteko prozesuak • Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Hizkuntzaren trataera integralari buruzko formazio saioetan irakasleen parte hartze bultzatzea.		<ul style="list-style-type: none"> • Asebetetzearen balorazioa = 9 • Parte-hartzearen balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Irakasleen hizkuntza eredua eta komunikazio gaitasuna etengabe hobetzeko, neurri batean denok garez hizkuntza irakasle, formazio saioetan irakasleen parte hartzea sustatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Parte-hartzearen balorazioa = 9 Prestakuntzaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Konpetentzietan oinarritutako metodologiaren gaineko formazio saioak jasotzea etapa guztietan.		<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzearen balorazioa = 8 Prestakuntzaren balorazioa = 8 Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Frantseseko irakasle berri guztiak Eleanitzeko metodologian formatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikastolako irakasleok Euskaltzaindiaren arauak egunean izatea.		<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntzaren balorazioa = 9 Betetze mailaen balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

2.3. atala: EREMU PEDAGOGIKOA – GELAZ KANPOKOA (HEZITZAILEAK) + EREMU INSTITUZIONALA – IKASTETXEA (LANGILEAK)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Gelaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten hezitzaile guztiek euskara maila ona edukitzeko, prestakuntza-plana antolatzea eta gauzatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak Besteak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Hezitzaile ez diren langileen euskara maila egokia izateko, hizkuntz beharrei erantzutea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 7 Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> Mantentze jarduerak Besteak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Hezitzailea eta langilea kontziente izatea esparru honetako komunikazio-egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta euskalkia dagozkiena.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Besteak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Gelaz kanpoko komunikazio-egoeren mesedetan, hezitzaile guztiak inplikatur erabili beharreko estrategiak adostea eta burutzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 6 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Ikastolak antolatzen dituen jarduera guztietan euskarak eta euskal kulturak protagonismoa izatea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 9 Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X

2.4. atala: EREMU INSTITUZIONALA – FAMILIA

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Gurasoen motibazioa lantzea, komunikazioa euskaraz izateko asmoz.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza edo trebatze jarduerak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Ikastolako familien hizkuntz tipologiari erantzuteko irizpideei jarraitzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Ebaluazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Familia barruko hizkuntz erabilera zein den ezagutzea eta datuak eguneratzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Besteak 	Hizkuntza proiektu taldea	X	X	X	X
Gurasoen hizkuntza jarreretan eragitea, euskararekiko atxikimendua, kontzientziarazioa eta jarrera positiboa mantentzeko.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 6 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Hizkuntza proiektu taldea				
Guraso ez euskaldunak ikastolako eremuan oinarritzko espresioak euskaraz erabiltzera bultzatzera.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 5 	<ul style="list-style-type: none"> Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Protokoloa egitea hizkuntza ezberdinen trataerarako, etorkinen gurasoekin harremana zehazteko.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak Erabakiak adosteko prozesuak 	Zuzendaritza	X	X		

3.1. atala: EREMU PEDAGOGIKOA – GELAZ KANPOKOA

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Kanpoko ekintzetan ikasle euskaldun eta atzerritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea eta bermatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Erabakiak adosteko prozesuak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Garraioaren unean euskal giroa sortzea, euskal musikaren eta filmen bidez.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Erabakiak adosteko prozesuak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Hezitzaileen euskararen erabilera egokia areagotzen duten estrategiak aplikatzea.		<ul style="list-style-type: none"> Asebetetzearen balorazioa = 8 Parte-hartzearen balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa jarduerak Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza				
Ikasleen hizkuntz erabilera ez formala sistematikoki behatzea eta kontzienteki inplikatzeko.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 7 	<ul style="list-style-type: none"> Sentiberatze-motibazio jarduerak Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X
Hezitzaileak kontziente izatea gelaz kanpoko komunikazio egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta euskalkia dagozkiela.		<ul style="list-style-type: none"> Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> Hausnarketa jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Gelaz kanpoko eremuan euskararen presentzia eta erabilera indize maila altuei eustea.	• Betetze maila = 20		<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa jarduerak • Ebaluazio jarduerak • Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Euskal kulturarekiko atxikimendua mantentzeko sustapen ekintzak antolatzen jarraitzea.	• Betetze maila = 10		<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa jarduerak • Ebaluazio jarduerak • Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Kanpoko jardueretan hitanoaren erabilera zuzena bultzatzea.	• Betetze maila = 10		<ul style="list-style-type: none"> • Sentiberatze-motibazio jarduerak • Mantentze jarduerak 	Hizkuntz proiektua taldea	X	X	X	X

3.2. atala: EREMU INSTITUZIONALA – KANPO HARREMANAK (3. ZATIA)

HELBURUA	ADIERAZLE KUANTITATIBOAK	ADIERAZLE KUALITATIBOAK	JARDUERA MOTAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA			
					18-19	19-20	20-21	21-22
Udaleko Euskara Patronatuarekin nahiz inguruko euskara elkarteekin elkarlanean aritzea ekintzak antolatzen eta parte hartzen.		<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzearen balorazioa = 9 • Betetze mailaren balorazioa = 9 	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa jarduerak • Hausnarketa jarduerak • Sentiberatze-motibazio jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X
Udalerriko euskararen presentzia eta ezagutza mantentzeko Udalarekin elkarlanean aritzea.		<ul style="list-style-type: none"> • Betetze mailaren balorazioa = 8 	<ul style="list-style-type: none"> • Sentiberatze-motibazio jarduerak • Mantentze jarduerak 	Zuzendaritza	X	X	X	X